

## ANIZTASUN FUNTZIONALA

(2022ko maiatza)

Prentsa oharra

### SARRERA

Azterlan honen gaia izan da Euskadiko biztanleek aniztasun funtzionalaren aurrean dituzten pertzepzio eta jarrerak. Landa-lana 2022ko maiatzaren 2tik 6ra artean egin zen.

### Balorazio ona jasotako laguntza, informazio eta babesaren gainean

Elkarrizketatutako pertsonen erdia inguruk dute harreman zuzena desgaitasunarekin: %4ak berak du desgaitasunen bat eta %46k gertuko pertsonaren bat dute desgaitasunen bat duena. Harreman nahiko estua dute gainera: desgaitasunen bat duen gertuko pertsonaren bat dutenen %64k astean hainbatetan dute harremana pertsona horiekin.

Desgaitasunen bat duten pertsonak edo desgaitasunen bat duen gertuko norbait dutenek zentro publikoetara jotzen dute informazio, aholkularitza eta laguntza bila (%45) batez ere, zentro pribatuetara (% 13) edo GKE, elkarte edo fundazioetara (% 16) baino gehiago. Erakunde edo zentro horiek eskainitako zerbitzuen balorazioa altua da, batez ere, azken horien kasuan: 0tik 10era bitarteko eskalan, 6,2ko puntuazioa zentro publikoetan jasotako arretak, 6,8 zentro pribatuetan jasotakoak eta 7,7 GKE, elkarte edo fundazioetan jasotakoak.

### Handiagoa da desgaitasun intelektuala duten pertsonen hautematen den diskriminazioa desgaitasun fisikoa dutenekikoa baino

Inkestari erantzun diotenen uste dute jendea, oro har, deseroso sentitzen dela desgaitasunen bat duten pertsonekin harremanean, eta %47k uste dute jendea, oro har, oso edo nahiko deseroso sentitzen dela. Aldiz, sententzia pertsonalei buruz galdetzean, gehienek diote pertsonalki eroso sentitzen direla: batez ere, gorpil-aulkian dauden pertsonen aurrean (%91 oso edo nahiko eroso) eta pertsona itsuen aurrean (%88); eta zertxobait gutxiago desgaitasun psikikoa dutenen (%76 oso edo nahiko eroso) edo ahoz komunikatu ezin duten pertsonen aurrean (%60).

Gehienek uste dute desgaitasuna duten pertsonen diskriminazioa ez dagoela oso zabaldua Euskadin: %58k uste dute desgaitasun fisikoa duten pertsonen diskriminazioa ez dagoela oso zabaldua edo ez dagoela batere zabaldua, eta %48k iritzi bera dute desgaitasun intelektual edo psikikoa duten pertsonen diskriminazioari buruz. Oro har uste da diskriminazioa hedatuago dagoela desgaitasun intelektuala duten pertsonen (%43 oso edo nahikoa) desgaitasun fisikoa duten pertsonen baino (%33).

Gainera, diskriminazioaren pertzepzioa dezente zabalduagoa dago desgaitasunen bat duten pertsonen artean: horien artean, %43k uste dute desgaitasun fisikoa duten pertsonen diskriminazioa oso edo nahiko hedatuta dagoela, eta %46k desgaitasun intelektuala duten pertsonen diskriminazioa.

### Desgaitasunen bat duten pertsonen leku publikoetara iristeko duten aukera asko hobetu da, baina badago zer hobetu

Biztanleek uste dute desgaitasuna duten pertsonen egiteko zailena egiten zaizkien jarduerak direla “parrandan atera edo diskoteketara joatea” (oso edo nahiko zaila %73rentzat) eta “kirola ikuseko edo egiteko lekuetara joatea” (%54). Herritarren erdiak uste du, halaber, zaila dela desgaitasuna duten pertsonentzat “garraio publikoa erabiltzea” (%48), “zinema, antzerki, museo eta erakusketetara joatea” (%45), “taberna eta jatetxeetara joatea” (% 44) edo “dendetara joatea” (%42).

Biztanleriaren erdiak baino gehixeagok dio euren herriak eta hiriak ondo prestatuta daudela desgaitasuna duten pertsonen mugikortasuna errazteko, semaforo egokituei dagokienez izan ezik (ez dira herenera iristen ongi prestatuta daudela pentsatzen dutenak). Hala ere, lautik baten kasuan, bere herria edo hiria ez dago ondo prestatuta “arrapalak dituzten edo bertaratzeko errazak diren merkatuei edo supermerkatuei” dagokienez (%24) eta “gorpil-aulkian espaloietara igotzeko arrapalak eta zintarriak” dagokienez (%28); %39rentzat euren herri edo hiria ez dago ondo prestatuta “oztoporik eta zuloz gabeko espaloiei” dagokienez, eta erdientzat baino gehiagorentzat ez dago prestatuta “itsuak diren edo ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat egokitutako soinu eta iraupen nahikoa duten semaforoen” aldetik (% 56).

Nolanahi ere, biztanleek uste dute azken urteotan desgaitasuna duten pertsonak leku publikoetara iristeko edo sartzeko dituzten aukerei dagokienez, bilakaera oso ona izan dela: hamarretik bederatzik uste dute hobera egin duela (% 49k asko eta % 39k nahikoa). Gainera, ia guztiak ados daude horrelako neurriak finantzatzen

jarraitzearekin: eta “desgaitasuna duten pertsonen bizitza zailtzen duten oztopo edo barrera fisikoak kentzeko dirua bideratzearekin” %73 oso ados dago, eta %25 nahikoa ados.

### **Gehiago sustatu behar da desgaitasuna duten pertsonen integrazioa, bai lan-munduan, bai hezkuntza-munduan**

Elkarrizketatuek uste dute desgaitasuna duten pertsonen lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiak (%38) edo dezentekoak (% 39) dituztela, eta ez dela nahikoa egiten pertsona hauek lan-munduan sartzeko (%44k uste dute ez dela askorik egiten eta %9k ez dela ezer egiten). Are gehiago, gehienek uste dutenean lantokian gainerakoak bezain produktiboak izan daitezkeela (%81 oso ados edo nahiko ados daude), eta desgaitasuna duen pertsona batekin lanean eroso sentituko liratekeela (8,4, 0tik 10erako erosotasun-eskalan).

Hezkuntzari dagokionez, gehienek uste dute desgaitasun fisikoa (%87) edo intelektuala (%74) duten haurrak gainerako haurren eskola berberetan eskolatu behar direla.

### **Azken 10 urteetan asko hobetu den arren, desgaitasuna duten pertsonen gizarte-zerbitzu gehiago eskaintzeko beharra ikusten da**

Pertsonen %68k uste dute azken 10 urteetan desgaitasuna duten pertsonen emandako laguntza eta babesa asko edo nahikoa hobetu dela, baina erdiak baino gehiagok uste dute pertsona horiei eskaintzen zaizkien gizarte-zerbitzuak oraindik ez direla nahikoak (%46rentzat ez dira oso nahikoak eta % 9rentzat ez dira inondik inora nahikoa).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1. 210 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa  $\pm$  % 2,87koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako,  $p=q=0,5$  izanik. Informazio bilketa 2022ko maiatzaren 2a eta 6a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 19a